

Imajina ezazu Lehendakaria (I)

Benetan berdin zait Francisco, Patxi ala Hussein deitzea gure hurrengo Lehendakaria –“gure” diot, Juanjo, nahiz, ez den benetan EAEko periferian bizi garenona, baina, zer demonio, nireago dut Lehendakariaren figura Errepublikan frantseseko Presidentearena baino eta mentalki bederen beti bozkatzendut EAEn ere–.

Berdin zait bere jaioterria, berdin ere bere erlijioa, bost axola zein arrazakoa den eta gauza bera gustu musikalei dagokienean ala bere joera sexualei. Ez ordea *euskaldun* izaera. Lehendakarigaiak euskalduna izan behar du, hitzaren zentzu lehenean, hau da, euskara hitz egin behar du. Eta ondo –gaztelera jakin behar duen moduan–. Hortik beherako Patxi bat ez zait inoiz Patxi 2.0 irudituko, baizik eta Patxi 0.2. Penatu nau, bidenabar, zure *lovestory* birtualaren amaierak, Katixa. Udazken euritsu hauek ez dute ezer onik ekartzen...

Nolako Lehendakaria behar genuke guk Obama efektu bat sortzeko? Horra nire buruari –eta zuei bioi– egiten diodan galdera. Inoren baitan zentralismo edo periferismo susmorik sortuko ez lukeen hautagaiak, Obama lez, erresuminik gabea izan beharko luke batez ere. Hots, aurretik baztertuta geratzen dira presondegian egondakoak edo hurbilekoren bat izan duten guztiak, torturatuak, atentatuz hildakoen ahaideak, bahituak eta beren hurbilekoak, diskriminazio linguistikoen biktimak, karlistaden edo gerla zibilaren oroitzapen mingarria duten familetakoak...

Onena, beraz, etorkin iritsi berri bat litzateke, aukeran urrutitik etorria –zeren, hurbilegiko herrietan gehiegi ezagutzen dute gure arazoa eta aurreiritzia izan dezakete– baina ez hispanoamerikako herri batetik, noski. Asiar bat, demagun. Horrek duen



DANI BLANCO

Ur Apalategi

Olasagarre

Agirre

abantailetarik bat da asiarrak erraz ikasten dituztela hizkuntzak eta otzan-otzan egokitu ohi direla dauden tokiko lege eta ohituretara. Kontuz, halere, ez luke Asiako herri-inperio batetik etorri beharko –honek identifikazioa sor baitezake hemengo zentralistekiko–, ezta, jakina, herri menperatu batetik –euskaldunekiko identifikazioa ziurra bailitzate-

ke orduan–. Herri ertain eta demokratiko batetik etorri behar luke beraz. Demagun...

Beno, utz dezagun alde batera demokratikotasunaren irizpidea edo har dezagun zurruntasunik gabe, bestela ez dugu ezer aurkituko. Ea orain. Malasia izan liteke aukera polita. Formalki demokratikoa da, geopolitikoki nahiko autonomoa inguruko potentzia handiekiko, eta bai etnikoki bai erlijio aldetik anitza. Bestalde, ze kasualitate, ongi etorria, nazio malasiarraren definizio plurietniko baterantz bideratu da azken urteotan –oztopo zenbaitekin, hori bai– hango politika. Asiarren merkatarisena eta lanerako predisposizioa gustatuko litzaieke hemengo bando bietako gorbataidunei, eta gorbatagabe guztien antikonformismo egarria asetzearren emakumezko bat ekarriko genuke, musulmana baina laiktasunaren aldekoa.

“Euskaying, euskayang” izango litzateke bere hauteskunde kanpainaren lelo bateratzailea eta denoi batera lan egitea proposatuko liguke helburu berarekin: euskal gatazkaren inguruko *merchandising* eraginkor bezain emankorra antolatzea, kontuan iza-

nik hori dela nazioarteko merkatuari begira gure produkturik originalena. Euskara denok ikastea eta erabiltzea makro enpresa turistiko honen arrakastaren baldintza ezinbestekoa litzatekeenez, euskalgintza despolitizatuturik geratuko litzateke, baina ez horregatik ahuldurik.

Zuen txanda orain, Juanjo eta Katixa. ■

Patxi bat ez zait inoiz Patxi 2.0 irudituko
baizik eta Patxi 0.2. Penatu nau, bidenabar,
zure *lovestory* birtualaren amaierak, Katixa.

Udazken euritsu hauek ez dute
ezer onik ekartzen...